



Usurbilgo Udala

2020KO EKAINAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta
Lur Etxeberria Gurrutxaga
Joxe Mari Iribar Zampirain
Aroa Etxeburua Ugartemendia
Luken Arkarazo Silva
Oskar Santamaria Pikabea
Itziar Basterrika Unanue
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Carlos Pérez Fraisoli
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Ez da bertaratu: Andoni Atxega San Sebastian.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2020ko ekainaren 25ean arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

* 2020/05/28KO OHIKO BILKURA.

Batzarkideek, 2020ko maiatzaren 28ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

* 2020/06/16KO EZOHIKO BILKURA.

Batzarkideek, 2020ko ekainaren 16ko ezohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.



Usurbilgo Udala

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020KO MAIATZAREN 18TIK EKAINAREN 19RA (2020/315-2020/467).

Alkatetzak 2020ko maiatzaren 18tik ekainaren 19ra bitartean (2020/315-2020/467) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- JMSS JAUNAREN ZAKURRAREKIN EMAN DIREN GERTAKIZUNENGATIK ZIGOR ESPEDIENTEA.

Lur Etxeberriak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu irizpenean jasotzen den moduan.

Batzarkideek, Zerbitzuak eta mantenuak batzorde informatzaileak egindako irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. zk.: HZ.08/2020-0022

JMSS jaunaren aurkako zigor-jardunbidea animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren xedapenen urraketagatik irekitako espediente zigortzailea aztertu ondoren, eta espediente izapidetzen duen instruktoreak egindako ebazpen proposamena kontuan harturik, honako proposamena egiten dio Udalbatza plenoari:

IKUSIRIK

2020ko urtarrilaren 27ko zinegotzi delegatuaren 2020/0055 dekretu bidez JMSS jaunaren aurkako HZ.08/2020-0022 zigor-jardunbideari hasiera eman zitzaion.

2020ko urtarrilaren 29an jakinarazi zitzaion JMSS jaunari zigor espedientearen hasiera, 15 eguneko epea emanez jardunbidearen izapidetza, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritakoaren arabera, errefusatzeko edota ongi iriztitako alegazioak, dokumentuak edota informazioak aurkez zitzan. Era berean, frogaldia irekitzeko eskabidea egiteko eta egoki ikusitako frogabideak proposatzeko.

Emandako epea amaituta, JMSS jaunak ez zuen alegaziorik aurkeztu, ez eta frogaldia irekitzeko eskatu.

Urriaren 1eko Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 legeak honako hau jasotzen du bere 85. artikuluan:

*Zehapen-prozedura bat hasitakoan, arau-hausleak bere erantzukizuna aitortzen badu, **dagokion zehapena ezarriz ebatzi ahal izango da prozedura.***

(...)

Zehapena diruzkoa soilik denean, prozedura ebazteko eskumena duen organoak murriztapenak aplikatuko ditu, gutxienez % 20koak, proposatutako zehapenaren



Usurbilgo Udala

gainean, (...). Haietaz baliatzeko, bestalde, zehapenaren aurka administrazio-bidean jarritako akzio edo errekurtsioetan atzera edo uko egin beharra dago.

KONTUAN HARTURIK

Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzako (GAO 2011-05-09) 6. artikulua xedatutakoaren arabera, *Kode Zibilaren 1905. artikuluan ezarritakoaren arabera, animaliaaren edukitzaila izango da animaliak sortu ditzan kalte, galera eta arazoaren erantzulea.*

Aurreko xedapenak aintzat harturik eta espedientean aurkitzen den dokumentazioa eta frogak ikusi ondoren, burututako egintza arau-urratze **larria** dela, Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 29.2.g) artikulua arabera (*kalteak eragin ditzaketan animaliak zaindu eta babesteko beharrezko eginbidea ez izatea.*)

Instruktore honen ustez, **frogatuta** geratu dela aipatutako **arau-urratzea eta erantzulea**. Usurbilgo udaleko udaltzainburuaren 2020ko urtarrilaren 20ko salaketa-txostenean deskribatu eta zehaztu zen gertaera, eta espedientean jaso dira Ertzantzan ezarritako salaketa akta.

JMSS jaunak ez du alegaziorik aurkeztu. Hirugarrenek esandakoak udaltzainburuaren txostenak jasotzen ditu, eta horri lotutako dokumentazioa esan bezala espedientean jaso da.

Udaltzain kideen funtzio eta eginbeharrak 2017ko urriaren 6an emandako idazkariaren txostenean zehaztu ziren, eta agintaritzaren izaeraren aitortza azpimarratu. Horren arabera, bere salaketa frogaren nahikoa dela ondorioztatzen da salatutako pertsonaren errugabetasun-presuntzioa indargabetzeko. Agintaritzaren Agente izaera duten funtzionarioek adierazitako gertakariari Legeak frogaren balioa esleitzen diela (39/2015 Legeko 77.5 artikulua). Udaltzainburuaren txostena administrazio-espedientean sartuta dagoela eta honek frogaren gisa balio du. Agintaritzaren Agentearen salaketari Legeak nahiko indar esleitzen dio salatutako gertakariak ziurtatzeko eta ondorioz isuna jartzeko ekintza zuzenbidezko hartzen da. Ahalmen edo botere honek kontrako frogaren onartzen du noski.

Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 30.1.b) artikulua, arau-urratze larrientzat ezar daitezkeen **zehapenak** zehazten dituela:

30. artikulua. Zehapenak.

1. Animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legearen arabera, animaliak babesteari buruzko arau-haustea honako zenbateko hauek dagozkien isunekin zehatuko dira:

(...)

b) Arau-hauste larrietarako isuna: 300,52 €-tik 1.502,53 €-ra.



Usurbilgo Udala

(...)

Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 32. artikulua 1 atalak berriz **zehapenak ezartzeko mailaketa** zehazten duela:

1. Isunen zenbatekoa mailakatzeko eta aurreko artikuluko 3. idatz-zatian aurreikusitako zehapenen iraupena zehazteko, honako inguruabar hauek kontuan izango dira:

- a) Egindako arau-haustearen transzendentzia soziala eta sanitarioa, eta eragindako kaltea.
- b) Legez kanpoko irabazi-asmoa agerikoa izatea eta arauhaustetik irabazitakoaren zenbatekoa.
- c) Arauak hausten segitzea. Zehapen-espeditentia abiarazi aurreko bost urteko epean Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteren bat administrazio bidezko ebazpen irmoz zehapena ezarri bada, arauak hausten segitu dela ulertuko da.
- d) Arau-haustearen gaitzespen-mailan eragin dezakeen beste edozein, bai aringarria bai astungarria. Horretarako, bereziki esanguratsua izango da animalien aurka erakutsitako bortxakeria haurren edota adimen-urrituen aurrean egin izana.

Bestalde, kontuan izan behar dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 legeak 85. artikuluan jasotakoak; arau-hausleak bere erantzukizuna du, eta prozedura ebazteko eskumena duen organoak murriztapenak aplikatu beharko ditu, %20koak, proposatutako zehapenaren gainean, beti ere zehapenaren aurka administrazio-bidean jarritako akzio edo errekurtsioetan atzera edo uko egin beharko duelarik arau-hausleak.


Zerbitzuak eta Mantenua Batzordeak 2020ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Lur Etxeberria, Jose Mari Iribar eta Patxi Suarezen aldeko botoekin eta Carlos Perezen abstentzioarekin, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: JMSS jaunak, Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 29.2.g) artikuluan xedatutako arau-urratze **larria** burutu du, hau da, *Kalteak eragin ditzaketen animaliak zaindu eta babesteko beharrezko eginbidea ez izatea*, espeditentian aurkitzen den dokumentazio eta frogen baitan.

BIGARRENA: JMSS jauna da arau-haustearen erantzulea, Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 6. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeko 8. eta 9. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriaz.

HIRUGARRENA: JMSS jaunari, burututako arau-hauste larria dela eta, Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 30.1.b)



Usurbilgo Udala

atalean aurreikusitako zehapena jartzea, hain zuzen ere, **300,52 euroko isuna** ezartzea (arau hauste larria bere maila baxuenean) ordenantza bereko 32. artikuluko 1. atalean xedatutako irizpideak eta espedienteko dokumentazioa kontuan hartuta, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeko 7. eta 14. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriaz.

LAUGARRENA: Zehapen horren gainean, 39/2015 legeak bere 85. artikuluan aurreikusitako %20ko murriztapena ezartzea; beraz, ordaindu beharreko **isuna 240,42 euro** izango dira, beti ere zehapenaren aurka administrazio-bidean jarritako akzio edo errekursoetan atzera edo uko egin beharko duelarik arau-hausleak.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

4.- GABRIEL ANTONIO VALIN MARZAN JAUNAK AURKEZTEN DUEN MOZIOA.

Hasteko, mozioa batzorde batek diktaminatu gabe datorrenez, batzarkideek gehiengoz plenoan tratatzea erabaki dute.

Honela izan da bozketa:

Tratatzearen alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Tratatzearen kontra: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Alkateak galdetu du herritar batek mozio bat aurkeztu nahi badu ea zuzenean plenora ekarri daitekeen.

Idazkariak adierazi du galde-erreguetako puntua normalean herritarrek parte hartzekoa izaten dela. Kasu honetan herritar honek mozioa erregistratu egin duela eta alkateak gai-ordenean sartzea erabaki duela zehaztu du. Era berean, interesatua bertan dagoenez eta alkateak hitza emango balio, interesatuak berak azaldu ahal izango lukeela dio aurkeztutako mozioa.



Usurbilgo Udala

Alkateak adierazi du aukera hori egonda, herritarrari aukera eman ziola, jakinda diktaminatu gabe zegoela eta aurrez mozioa tratatzea bozkatu beharko zela. Herritarra bertan dagoenez, nahi izango balu hitza emango diola esan du.

Hala ere, aurretik aipatu nahi izan du mozioa urtarrila-otsailean erregistratu zela, otsaileko plenora eramateko astirik ez ziotela eman eta martxoan koronabirusak eragindako alarma-egoera eta horren kudeaketa tarteko alkateak berak bazterrean utzitako gaia izan zela adierazi du. Mozio honen harira herritarrarekin berarekin bildu zirela aditzera eman du baina honek mozioa plenoan tratatzea nahi zuela eskatu omen zien eta horrela egin dutela.

Herritarrari hitza eman dio.

Gabriel Valin herritarrak adierazi du: *“Cuando decidáis votar me gustaría intervenir.”*

Alkateak esan du mozioa plenoan tratatzea bozkatu dutela eta gehiengo batek hori erabaki duela, beraz, mozioaren bozketara pasa aurretik egokiagoa dela uste du mozioa aurkeztu duen herritarrari entzutea.

Gabriel Valinek honako hitzak izan ditu: *“Creo que la moción la tenéis todos, aunque sea el documento que se registró en la última ocasión. A finales de enero se presentó la moción con todos los documentos y la moción está compuesta por cuatro propuestas. Hay mociones declarativas y hay mociones propositivas, y esta que tenéis encima de la mesa es una moción propositiva.”*

La primera propuesta tiene que ver con un estudio que se hizo sobre el autoabastecimiento de una alimentación para el conjunto de la población de Usurbil. Es un estudio que se realizó ya hace unos años y además en el contexto en el que nos encontramos de la crisis que estamos viviendo y sintiendo, creo que es un tema urgente y necesario.

Pedí en la reunión que tuve con la alcaldesa y dos concejales a ver si ese estudio había sido analizado por parte del equipo de gobierno y si se había trasladado ese estudio a los técnicos municipales para que realizaran una valoración. Y creo que de ninguna de las dos partes se ha hecho.

La segunda propuesta tiene que ver con la posibilidad de realizar un estudio para implantar un proyecto de energías renovables en el barrio de Kalezar. Se toma como referencia el proyecto ya ejecutado y funcionando en el municipio de Ispaster en Bizkaia.

Varios vecinos de Kalezar visitamos Ispaster para ver aquello y nos quedamos gratamente sorprendidos de aquel proyecto. Según la cooperativa que puso en



Usurbilgo Udala

marcha el proyecto de Ispaster, el coste de un estudio similar en Kalezar costaría 5.400 euros. Se nos contestó por parte de la anterior corporación que debíamos de esperar al proyecto que se estaba realizando en Zubieta. El responsable de este proyecto es la dirección del Centro de Formación Profesional de Zubieta y según la información que tiene es un proyecto que en este momento se encuentra en vía muerta.

Creo que la inversión que se propone de los 5.400 euros en la situación en la que estamos en este momento no es lo suficientemente elevado como para que se aborde ese estudio que cabe que sea replicable a otros barrios.

El tema de la alimentación y el tema de la energía en el momento que estamos viviendo son temas de extremada urgencia y necesidad para la población.

Se nos contestó públicamente que en el tema de la alimentación se estaba trabajando en el proyecto de Km.0. La información que yo tengo de los responsables de la mancomunidad de este tema, no da respuesta a las necesidades de la alimentación.

Se os ha pedido también que en la situación en la que estamos viviendo permitais iniciar un proceso de participación para que cualquier partido político, sindicato, colectivo social o persona interesada de Usurbil pueda presentar propuestas para que desde el ámbito municipal podamos ver si podemos hacer proyectos que nos permitan enfrentarnos a la crisis que ya estamos viviendo. Es un proceso de participación democrático, que tendríais que ser los primeros interesados en abrirlo.


Por último, se os presenta una propuesta para que creéis las condiciones para que se inicie un proceso constituyente para que se pueda constituir el Batzarre local de Usurbil. Un proceso constituyente que al menos se estructure en tres fases. Una primera fase de información y comunicación dando a conocer a toda la población de Usurbil los ensayos y estudios que se hayan realizado hasta este momento en torno al Batzarre. La segunda fase sería la del debate público y la tercera fase sería la de habilitar una consulta popular para que la población de Usurbil decidiera si quiere constituir ese Batzarre local, que lo que busca en este momento de crisis es simplemente que nos podamos autogobernar y que no sea una minoría la que tome las decisiones que luego afectan al conjunto de la población.

Una institución que es propia de Euskal Herria, seguramente la más democrática que el ser humano ha sido capaz de construir.”

Alkateak gainontzeko udal taldeei eman die hitza.

Josune Urkolak adierazi du ez dutela gai hau tratatu nahi, gai honek sospresaz harrapatu baiditu.

Mozioan Gabriel Valinek galdera zuzen bat egiten duela dio “¿En la actual situación de Emergencia Social, la Alcaldía, las concejales y concejales del Ayuntamiento de



Usurbilgo Udala

Usurbil, aceptan devolver la capacidad de decidir a las personas del pueblo de Usurbil, o por el contrario un grupo reducido de personas siguen adoptando las decisiones públicas que afectan a todo el pueblo? eta honen aurrean adierazi du beraiek konpromiso bat hartu zutela sistema honen barruan eta beraiek herritarren ordezkari direla.

Alkateak adierazi du EH Bilduko udal taldeak mozio honen kontra bozkatuko duela eta Gabriel Valinekin bildu zirenean jakinarazi ziotela gaineratu du.

Guzti honen berri, batez ere, Gabriel Valinen Noauako gutunaren bidez izan zutela esan du.

Burujabetza energetikoa eta elikadura burujabetza badirela dio udal gobernu honen ildo estrategikoak eta norabide horretan lanean ari direla eta lanean jarraituko dutela esan du, ulertzen dutelako klima aldaketaren erronka begibistako erronka bat dela bai maila globalean zein maila lokalean. Gaineratu du legealdi hasieran legealdiko plan bat osatu zutela. Norabide horretan 51 neurri edo ekimenetik gora proposatu zituztela eta beraien konpromiso osoa agertu du neurri horietan aurrera egiteko, are gehiago osasun krisi honek eragingo dituen ondorio guztiak aintzat hartuz. Momentu honetan epe luze-ertain batetarako lehentasunak finkatu dituztela adierazi du eta dudarik gabe lehentasun nagusia dela dio ekonomia lokala berraktibatzea.

Gabriel Valinek esan duela dio “herri honi lapurtutako burujabetza”, honen aurrean alkateak azpimarratu du udal gobernu honen filosofia dela burujabetza konpartitu bat dutela, beraien udalgintza ulertzeko modua herrigintza egiteko modua dela. Krisi honi erantzuteko eskuz esku lanean ari direla esan du sektore guztiekin eta hori dela dio beraien udalgintza ulertzeko modua, eredu partehartzaile eta eraldatzaile bat.

Bileran Gabriel Valini adierazi zioten moduan, mozio honetan aipatzen dituen hainbat gai eta ikuspegirekin ados daude, zer esanik ez trantsizio energetikoan eta elikadura burujabetzan eta horretan guztian sakontzeko prest daude, baina beste guztian bistan da ez daudela ados. Mozioa bere osotasunean bozkatu behar denez, beraien bozka kontrakoa izango dela aurreratu du.

Patxi Suárezek adierazi du: *“Después de leer la moción hay muchas cosas con las que sí puedo estar de acuerdo, la soberanía alimenticia, también la energética, también me gusta el tema de la participación, pero no puedo votar a favor, tengo que votar en contra, sobre todo porque creo que el Ayuntamiento tiene legitimidad después de haber pasado por un proceso electoral. Pero sí quería remarcar que siempre se puede estudiar tener mejores formas de participación ciudadana.”*

Alkateak Gabriel Valini hitza hartzeko aukera eman dio, alderdiren batek adierazi duenaren inguruan zerbait esan nahi badu.



Usurbilgo Udala

Josune Urkolak adierazi du beraiek ez dutela bozkatu nahi eta erantzun zaie kasu horretan abstentzioa kontsideratuko litzatekeela.

Josune Urkolak adierazi du alkateak aipatu duela nahiz eta mozio hau urtarrilean aurkeztu zen zergatik orain ekarri den pleno honetara, baina Josunek esan du duela gutxi Antolakuntza batzorde bat egin dutela eta bertara zergatik ez den eraman galdetzen du.

Alkateak erantzun dio aurrez Gabrielekin hitzegin nahi zuela jakiteko zeintzuk diren mozio honen motibazioak.

Jarraian, Gabriel Valin herritarrak aurkeztutako mozioa bozkatu dute, honela izan da bozketa:

Mozioaren kontra: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, mozioa ez da onartua izan aho batez.

Gabriel Valinek hitza hartu du eta honako testua irakurri du: "Hoy es un día muy triste para Usurbil. Teníais que elegir entre aferraros al Poder que os otorga una Institución que forma parte del Estado Español, y en la que unos pocos toman las decisiones, o apostar por una Institución propia y más democrática como es el Batzarre y devolver la capacidad de decidir a la gente del pueblo. Pero habéis elegido el Poder.

Buscaba una metáfora para que me ayudara a describir la gravedad de la decisión que habéis tomado, y creo que en la película del Titanic hay una escena que se ajusta bastante bien. Esta escena recoge el momento en el que la gente sencilla ya siente el agua en los tobillos y busca corriendo la cubierta, pero alguien cierra con llave la puerta.

Mayor deslealtad con el conjunto de la población de Usurbil se me hace difícil de imaginar. La gravedad de la decisión que habeis tomado es mayúscula, ya que nos habéis relegado a la condición de súbditos de una Institución en el que las decisiones las toman unos pocos. Impidiendo que en la actual situación de Emergencia Social podamos autogobernarnos para poder defendernos ante la crisis que no ha hecho más que empezar.

Deslealtad con los antepasados, mujeres y hombres que lucharon por conservar las Instituciones propias de Euskal Herria, entre ellas el Batzarre.



Usurbilgo Udala

La decisión que habéis tomado no me parece ni inteligente ni prudente, ya que más pronto que tarde el Batzarre, y por simple necesidad se constituirá en Usurbil. Los augurios sobre lo que viene no son muy alentadores. El recorte del 20% del Fondo Foral no es más que el primer síntoma.

Cuando se constituya el Batzarre en Usurbil, no sé qué explicaciones o justificaciones vais a dar. Vosotros y los que están detrás de esta decisión.

En la moción se solicita información sobre las parcelas potencialmente cultivables. Hasta que se entregue esta información, presentaré todos los meses en el Registro Municipal dicha solicitud.”

5.- GALDERA-ESKAERAK.

Patxi Suárezek Covid-19ren bulego bat irekitzeko proposamena egin du. Zehaztu du ez dela bozketara eramateko proposamen bat baizik eta aintzat hartzekoa. Proposamena aurkeztea gustatuko litzaiokeela adierazi du.

Alkateak esan dio prozedura zuzena proposamena udal erregistroan erregistratzea eta dagokion batzordera eramatea eta bertan aztertzea izango litzatekeela, edo bestela politikoen artean noizbehinka egiten dituzten bilera batetara eramatea. Hemen horrela aurkeztea pixkabat arraroa geratzen dela adierazi du.

Patxi Suárezek erantzun dio ulertzen duela agian pixkabat arraroa geratzen dela baina eskaera-galderen puntua honetarako dela uste du, egia dela dio ez dela mozioa eta orduan ez dela bozkatu behar. Hemen aurkeztu nahi duena egoera honi aurre egiteko beste tresna bat da.

Jarraian Patxik testu hau irakurri du: “Covid-19ak osasun krisia eragiteaz gain, krisi ekonomiko larria ere herritarroï ekarri die. Askok ERTEetan edo zuzen langabezian geratu dira, autonomo askok establezimendua nola itxi behar izan duten ikusi dute, diru-sarrerak galduz. Familia askok lanaldiak murriztu behar izan dituzte adingabeen edo mendeko pertsonen zaintzarekin bateratzeko, horrek dakarren diru-sarreraren jaitsierarekin.

Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Usurbilgo Udalak hainbat laguntzailerro sortu dituzte pandemiak eragin dituen ondorio ekonomikoak arintzeko. Neurri horiek guztiak oso positiboak iruditzen zaizkigu, eta azertu beharko genuke nahikoak diren ala ez. Hala ere, sozialistok kezkatzen gaituena Koronabirusak sortu duen sufrimendua da.

Orain, laguntzen saiatzen ari diren erakunde horiek ere desorientazioa nolabait eragiten digute, ez dakigulako nora joan behar dugun diru-laguntzak eskatzera, zein laguntza eskatzeko eskubidea dugun edo ez, nola izapidetu laguntzak behar ditugun. Herritar asko udaletako oinarrizko gizarte-zerbitzuetara joaten dira, administrazioirik



Usurbilgo Udala

hurbilena delako. Eta udaletako langileak, lehenago zituzten erabiltzaileei arreta emateaz gain, orain haien lan-karga handitzen ari da, krisi handi honen ondorioz, baita itxarote-zerrendak ere.

Hori dela eta, PSE-EEtik eskatzen diogu Usurbilgo Udalari Covid-19ko leihatila bakar bat sortzeko, aldi baterako bulego bat, udal-laguntzak izapidetuko dituena, baina, era berean, hartu daitezkeen laguntza guztien berri eman ahal izango duena. Are gehiago, aipatutako eginkizunak burutzeko langile bat kontratatzeko behar den kreditua aldatzea proposatzen dugu. Gipuzkoako hainbat udalek antzeko baliabidea aukeratu dute, ez gogaitzeko lan handia egiten ari diren gizarte-zerbitzuak.”

Beñat Larrañagak hitza hartu du eta adierazi du azken aldian hainbat komunikabideetatik jasotzen dituztela edo bideratzen dituztela bai EAJtik eta baita PSE-Eetik horrelakoak, eta gainera leporatzen zaiela inongo akordiotarako edo partehartzarako borondaterik ez daukatela. Egon diren egoeran egonda, beste bi udal taldeak momentu oro jakinaren gainean egon direla eta ez zaiela inoiz parte hartzea debekatu azpimarratu du.

Erabiltzen ari diren gaia desegokia dela uste du eta neurri batean baita larria ere, zeren duela hilabete bat hemen elkartu baziren eta adostasun itxura eman baldin bazuten, zaila dela ulertzen dio Covidaren inguruko laguntzak baliatzea udal gobernuari kritika egiteko. Ekarpenetara irekita daudela esan du eta orain arte hori erakutsi dutela.

Amaitzeko esan du agian hauteskundeak gehiagotan deitu beharko direla maizago proposamenak egin ditzaten.

Patxi Suárezek adierazi du bera pixkat ezagutzen dutela eta hauteskundeak daudenean eta ez daudenean beti proposamenak egiten saiatzen dela.

Josune Urkolak dio ez dakiela zergatik esaten duen komunikabideetatik jakiten dutela, zeren Noauan zerbait jarri dutenean beti lehenengo sarrera eman diotela udalean adierazi du.

Aurreko astean sartu zuten azken eskaera izan zela dio azken Antolakuntza batzordean izan zuten puntuetako bat, besterik ez. Beñatek aipatu duen moduan badirudi bat bestearen atzetik sartu dituztela.

Hauteskunde kutsurik ez emateko eskatu dio Beñati, ez baita horrela.

Alkateak adierazi du proposamena sorpresaz hartu duela, zeren azken Antolakuntza batzordean azalpen guztiak eman baizituzten. Adierazi dutela dio partida agortu egin dela, eta hori ez dela horrela esan du alkateak, arrazoia ez zela partida agortzea, arrazoia zela dio salbuespenezko egoera batean martxan jartzen zuten dirulaguntza bat ohiko prozedurara itzultzea, ez dagoela besterik azpimarratu du. Esan ziela dio



Usurbilgo Udala

guztiekin harremanetan jarri direla banan-banan, inor ez dela babes gabe geratu, beraz, dirulaguntza hauek bertan behera uzteak ez duela esan nahi inor babes gabe utzi dutenik. Kudeaketa guzti hori eginda dagoela eta kudeaketa horren emaitzak gizarte zerbitzuetako departamendu buruak txosten batean jasota dituela adierazi du. Txosten hau departamenduko buruak gizarte zerbitzuetako batzordean aurkeztuko duela gaineratu du.

Alkateak galdetzen du zer dela eta datorren gai hau modu honetan publiko egin nahi izatea, gainera dakitenean honen arrazoia guztiz teknikoa dela.

Adierazi du ez zaiola onargarria iruditzen gai honekin zarata politikoa atera nahi izatea.

Kritikak onartzeko prest dagoela esan du alkateak, baina ez gezurretan oinarritutako kritikak, eta hau ez datorrela bat errealitatearekin adierazi du.

Patxiri zuzenduz, alkateak esan dio proposamen hau aztertzeko prestutasun osoa duela. Edonola ere, jakin behar dutela dio krisi honetan Beterri-Buruntzan webgune berezi bat, leihatila berezi bat sortu zela enpresa txiki, autonomo eta gainerakoei adierazteko handik eta hemendik zer nolako dirulaguntzak dauden. Udalera galdezka datorrenari ere jadanik informazio hori ematen zaiola gaineratu du. Beraz, Patxik proposatzen duen hori jada egiten ari direla adierazi du.

Alkateak adierazi du beste bi udal taldeak uneoro informatuta eduki dituela.

Patxik erantzun dio eskualdean bai baina bera Usurbilen sortzeari buruz hitz egiten ari dela.

Alkateak esan dio Usurbil Beterri-Buruntzako kide dela eta errekursoak ez bikoiztea dela helburua, nahiz eta udaletik bertatik ere informazioa ematen den.

Patxik adierazi du ez dakiela ondo ulertu duen baina alkateak esan duela berak ez duela proposamenik egin alarma egoeran, eta hori ez dela horrela esan du, berak proposamenak egin dituela adierazi du.

Beñat Larrañagak adierazi du egia dela alkatearen eta oposizioko buruen artean oso harreman zuzena egon dela. Hala ere, bere ustez orokorrean ez dute proposamen gehiegirik egin, nahiz eta proposamen batzuk egin dituzten.

Berriz ere errepikatu du hau publiko nola egiten den zeresan asko ematen duela. Proposamen hori era zintzo eta eraikitzaile batean egiten bada eta herritarren onura bilatzen baldin badugu, telefonoa badutela dio zuzenean deitzeko.



Usurbilgo Udala

Patxi Suárezek galdetzen du ea zertarako dagoen orduan azken puntu hau, galdera-eskaerena.

Alkateak errepikatu du bidea izan beharko lukeela proposamena erregistratzea, dagokion batzordera eraman eta bertan aztertzea. Bestalde, proposatzen duena jada egiten ari diren gauza bat dela errepikatu du.

Josune Urkolak Beñati galdetu dio, honek berriz esan duelako, ea sarrera eman ez dioten erantzunik eman ote duten Noaua bitartez.

Beñatek Patxiri esan dion gauza bera errepikatu dio, modu eraikitzaile batean egin nahi den zerbait baldin bada, egiteko moduak daudela.

Alkateak bere haserrea agertu du gai honetan ez direlako egia esaten ari.

Josune Urkolak erantzun dio hori esatea ez diola onartuko. Prozedura martxan jartzea da eskatzen dutena.

Alkateak adierazi du Gizarte Zerbitzuak 32 pertsona horiekin lanean ari direla eta pertsona horiek ez daudela babes gabe esan du.

Era berean, erabakia ez dela politikoa adierazi du, lehen ere esan zien moduan arrazoia guztiz teknikoa dela esan du. Interpretazio okerrik ez egiteko eskatu die.

Beñat Larrañagak adierazi du pozten dela bai EAJtik bai PSEtik herritarrekiko kezka hori azaltzen dutelako, baina pena bat duela esan du, Foru Aldundiak Fondo Foraletik 900.000 euro kendu dizkienean hain sutsu eta horrenbesteko grina ez dutela erakutsi erabaki horren kontra, diru horrekin gauza asko egin zitezkeela gaineratu du.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:04etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.